

5. atala.

Irratigintzaren panorama

Mendea betetzeko bidean jarri denean, irratigintzak hedabide gisa dituen balioak eta menpekotasunak zaharberriak ditu. Transmisio-sistema berriak eta digitalizazioak ekarriko duen kalitate-hobetzeari dagokionez, gero eta baliabide gehiago ditu eta, uhinez gain, kablea, satelitea eta internet bereganatu ditu. Seinalea eremu txikira ala mundu osora igorri nahi den definitzeko aukerak erraztu egin dira. Eta, xedetalde gisa markatu den jendearengana heltzeko edukiak ikuspegi orokorrekoak zein oso espezializatuak izan daitezke, inoiz baino gehiago.

Telebistarekin duen lehia aurrez aurre baino gehiago zeharka borrokatzen du irratia, bere indarguneen jakitun. Horretarako alde ditu, nola ez, hedabidearen irudi sozial oso aldekoa (informazio-tresna gisako balioa, entretenigarria, lagungarria, azkarra, freskoa...) eta etxean bezala lantokian, garraibideetan edo beste edozein tokitan entzuteko modua eskaintzen duela.

5. ATALA: IRRATIGINTZAREN PANORAMA

1. Estatu frantziarreko telebistagintzaren ibilbidea
 - Jaiotzatik Munduko Bigarren Gerrara (1922-1944)
 - Monopolioen eta irrati “periferikoen” arteko elkarbizitza (1945-1980)
 - Irratigintzaren jokaleku berria (1981tik gaur arte)
2. Estatu frantziarreko irratigintzaren gaur egungo egoera
3. Estatu espainiarreko irratigintzaren ibilbidea
 - Ekimen pribatuaren aintzindaritzea (1923-1937)
 - Kontrol politikoa irratan
 - Aldaketa erraldoien hamarkada
 - Oligopolioak
4. Estatu espainiarreko irratigintzaren gaur egungo egoera
5. Euskal Herriko irratigintzaren ibilbidea
 - Lehen urratsetatik erbestera
 - Gerra ostean, Estatuaren kontrol politikoa
 - Irratigintza librea, autonomikoa eta udal-irradiak
 - Geldiezinean, aurrera
6. Euskal Herriko irratigintzaren gaur egungo egoera
7. Bibliografia
8. Osagarriak
 - Intereseko webguneak

1. ESTATU FRANTZIARREKO IRRATIGINTZAREN IBILBIDEA¹

1.1. *Jaiotzatik Munduko Bigarren Gerrara (1922-1944)*

1837ko telegrafiaren legeak hedabide horren inguruko Estatuaren monopolioa markatu zuen. Aitzitik, haririk gabeko telegrafia, irratigintza hain zuzen ere, helburu komertziala zuten irrati-etxeek jarri zuten martxan. Irratigintza publikoaren eta pribatuaren eragin-eremuak, kontrajarriak askotan, oso presente egon dira Estatu frantziarreko sisteman.

Eiffel dorretik bertatik Eugène Ducretet ingeniariak Estatu frantziarrean burutu ziren lehen frogak egin zituenetik (1897) gutxira, Émile Girardeau-k lehen irrati, pribatua, jarri zuen martxan 1922an, Radiola izenaz bataiatuz, gero, Radio Paris izango zena. Berehala sortu ziren Radio Toulouse eta Radio Lyon bezalaxe beste asko. Mugaz bestalde, baina Frantzia bere emisio-eremutzat hartuta, Radio Luxembourg jaio zen 1932aren bueltan.

Estatuaren monopolio gisa definitua izan zen arren, publizitatearen bidez finantzatuko ziren irratientzako emisio-lizentzia behin-behinekoak banatu zituzten. 1933 arte ez zen “Le Poste national” —irratigintza nazionala delakoa— jaio, eta, urte berean, irrati-hargailua edukitzeagatik etxebizitzek ordaindu beharreko zerga antolatu zuten.

Urte gutxiko epean, irrati-hargailuen kopuruak gora egin zuen nabarmen: 1933an 1,3 milioi eta 1939an 5. Lanean ari ziren 32 irratietatik 12 pribatuak ziren eta gainontzekoak publikoak.

Irratigintza itzal handiko hedabidea bilakatu zen. Munduko Bigarren Gerrak iraun zuen bitartean, propaganda-arma gisa oso erabilia izan zen.

1.2. *Monopolioaren eta irrati “periferikoen” arteko elkarbizitza (1945-1980)*

Irrati aunitz nazien alde jarri zirelako eta orokorrean gerra osteko Estatu frantziarrak beharrezkoa zuen osaera politikoan eta administratiboan irratigintzak paper garrantzitsua zuela pentsatuz, gobernuak monopolio publiko gisa definitu zuen.

Pariserako eta Estatu frantziar osorako irrati-zerbitzu iraunkorra eta zabala ezartzeko pausoak ematen hasi ziren. Horrela, hasiera bateko RDF (Radio diffusion française) makalaren ondotik, estatu osorako Paris Inter (1946) etorri zen. Irratigintzaren hedatzearen eta sendotzearen ondorioz, RTF erakundea sortu zen, 1959an; *Maison de la Radio* eraikin zentralizatuan elkartu ziren zerbitzu guztiak 1963an, eta, azkenik, ORTF erakundea jaio zen, 1964an.

1. Manuel Bamberger-en (1997) *La radio en France et en Europe* liburuska erabili dugu abiapuntu gisa. Gainera, baliagarria izan zaigu “Guide de la radio 2003-2004” dokumentua (www.lagardere-active-pub.com).

Hirurogeigarren hamarkadan, ordura arteko France I, France II eta France III birbataiatu eta France Inter, France Musiques eta France Culture izendatu zituzten. France Inter, orotariko irrati eredukoa da, zalantzarik gabe garrantzitsuen.

Irrati-hargailu bat edukitzeagatik ordura arte ordaindu beharreko zerga desagertu egin zen 1978an. Harrez gero, telebistaren kanonaren bidez finantzatzen dira telebista-kanal publikoak eta irratiak.

70eko hamarkadatik aurrera, liberalizazioaren aldeko mugimendua gorpuztu zen, eta hainbat irrati-librek emititzeari ekin zioten. Mitterrand lehendakartzara heldu (1981) eta berehala, monopolioaren amaiera erabaki zuen gobernu berriak.

Bien bitartean, monopolioak irauten zuen bitartean, irrati-gintza “periferi-koa” deiturikoa garatzen ari zen. Beste batzuen artean, Alemaniatik (1955ean, Europe No 1), Monte Carlotik (1945ean, RMC), Andorratik (1939-1981, Radio Andorra) edo, handienak, Luxenburgotik (1933an, RTL) emititzen zuten irrati-emisora pribatuak —Sofirad erakunde publiko frantziarraren parte-hartzearekin— Estatu frantziarrean irrati-gintzak zuen indarra eta, nolabaiteko, aniztasuna agerian uzten dute.

1.3. Irrati-gintzaren jokaleku berria (1981etik gaur arte)

Irrati-gintza libreak giro politiko berrian aurkitu zuen abagunea, baina ez zen posible izango irrati-gintzaren garapen teknologikoagatik izan ez balitz. Maiztasun modulatuak (FMak) han eta hemen irratiak sortzeko bidea jarri zuen, eta hala izan zen.

Gainera, ordura arte publizitatea emititzeko baimenik ez zuten FMkoek finantzazio-bide hori eskuratu zuten. Harrez gero, irrati lokalak, mugimendu sozialetatik sortuak eta helburu komertzialik gabeak zirenak, asko eta asko, konzentrazio enpresarialaren zurrunbiloan (NRJren, Europe 1en eta RTLren inguruan, nagusiki) eta publizitate-lehian murgildu ziren.

Irrati-telebistagintza arautzeko sortuak ziren erakundeek —hasierako Haute Autorité, gero CNCL eta gaur egungo CSA delakoek— panoramaren irimotzea ezagutu zuten.

2. ESTATU FRANTZIARREKO IRRATI-GINTZAREN GAUR EGUNGO EGOERA

Agerian dagoen bezala, irrati-gintzak berebiziko garrantzi soziala, politikoa eta kulturala du Estatu frantziarrean. Azken hamarkadei dagokienez, aipatzekoa da ezen 1982ko “liberalizazioaren” ostean irrati-kopuruak gora egin zuela nabarmen eta, maiztasun modulatuari esker, programazio formatuak ugartu.

Irratigintzaren panorama berrian paper garrantzitsua jokatu du Conseil Supérieur de l' Audiovisuel-ek, berari baitagokio irratien betebeharrak, emisio-esparrua, sailkapena eta emisio-baimena bera nori eman erabakitzea.

CSAren arauketaren arabera, Estatu frantziarreko irradi-sisteman, beraz, irradi publikoak daude (estatu osorako emititzen duten RF, RFO eta RFI, indartsuen) eta pribatuak, horien artean nagusi dira lehengo *stations périphériques* deitu izan zirenak eta orotariko programazioa edukita Estatu osorako emititzen direnak (Europe 1, RTL, RMC eta Sud Radio). Pribatuentzako, geroago ikusiko dugun modura, bost irradi-eredu definitzen dira:

- **A erredua:** irradi asoziatiboak edo komunitarioak dira; elkarteak eta mugimendu sozialek ala kulturelek sortuak eta gertutatsuna lantzen dutenak. Egunean, gutxieneko lau orduko barne-programazioa eduki behar dute. Dirulaguntza publikoak eta kopuru jakin baterainoko publizitatea kontrata badezakete ere, finantzazio modura eta “ez komertzial” modura definituta daude.
- **B erredua:** irradi komertzial lokalak edo erregionalak; Estatu osorako irratikateekin bat egiten ez dutenak. Sei miloi pertsonako emisio-eremua baino txikiagoan arituko direnak eta barne-programazioa egunero lau ordutik gorakoa dutenak.
- **C erredua:** aurrekoaren antzera, komertzialak dira eta emisio-eremu lokal edo erregionalekoak, baina, kontrara, Estatu osorako irradi-kate tematiko (musika, gehienetan) batera lotuta daudelako, haren programazioaren bidez osatzen dute beren emisio-taulak. Irrati afiliatu horiek saio lokalak ere emititzen dituzte, gutxienez lau orduz.
- **D erredua:** Estatu osorako ari diren irradi-tematikoen biderkagailu-lan hutsa egiten duten irratia dira; hauek ere komertzialak dira, eta ez dute barne-programaziorik eskaintzen.
- **E erredua:** orotariko irradi komertzialak dira. Irrati-kate hauek deskoneksio lokalak egiten dituzten arren, emisioa Estatu osorako pentsatuta daukate, nagusiki.

Lehen aipatu dugun aniztasunari helduz, eta Coutard-ek “L’avenir de la radio à l’ère du numérique” txostenean dioenez, Estatu frantziarreko irratien nortasuna, edukia eta formatuak gauzatu joan dira. Lehiakortasunak eta irratien kopuruaren biderketak ekarri dute, neurri handi batean, irratiek bere programazioetan formatu jakin batera jo behar izatea. Aipaturiko autorearen esanetan (Coutard, 2001: 21-22), hauek dira Estatu frantziarrean aurkitu daitezkeen “formatuak” (ikus irratieskaintzari buruzko atalaren lehen azpiatala):

- orotarikoa: informazioa eta entretenimendua bilatzen dutenak; horien artean aintzinakoak dira France Inter, RTL, Europe 1, RMC eta Sud-Radio.

- irrati-formulakoak: tematikoki orotarikoak, informatiboak edo bestelako gaitan oinarrituak; hala nola, France Info edo BFM.
- irrati musikalak: helduentzakoak (25-49 urte bitartekoentzat: Europe 2, RFM, RTL 2, Nostalgie...) edo gazteentzakoak (15-25 bitartekoak: FUN, NRJ, Skyrock...)
- musika klasikora dedikaturikoak: France Musiques edo Radio Classique, adibidez.
- irrati lokalak, gertutasun geopolitikoan sustraitzen direnak.

Beraz, esandakoaren ildotik, jabetzari, emisio-eremuari edota formatuari dagokionez, Estatu frantziarreko panorama askotarikoa da. Eta, orain ikusiko dugun modura, finantzazioan ere ez dira berdintsuak.

Irratigintzaren ikuspegi finantzariotik begiratuta, konzentrazioarako joera nabarmenaren eraginez, hiru motatako irrati ageri dira gaur egun: irrati publikoak, asoziatiboak eta azkenik, pribatuak.

Irratigintza publikokoak (Radio France, RFI eta RFO) telebistagintzaren kانونaren bidez finantzatzen dira. Hori dela ta, publizitate-sarrerak legez mugatuak dituzte.

Elkarte eta mugimendu sozialen esku dauden irratiek, bestalde —600dik gora Estatu frantziarrean—, diru-laguntza publikoa jasotzen dute (FSER-Fond de Soutien à l'Expression Radiophonique) eta, aurrekontuen %20 arteko publizitateaz balia daitezke.

Azkenik, irratigintza pribatuari dagokionez, azken bi hamarkadetan konzentrazioarako joera oso azkarra izan duela ikus daiteke, afiliazio- edota erosketasailaren bidez. Irrati-kate komertzial horiek publizitateaz bizi dira eta, askotan, irratigintzara huts-hutsean dedikatzen direnez gain, talde multimedien presentzia duten enpresak ageri dira, azken horien artean daude Europe 1 Communication edo RTL Group.

Estatu frantziarreko irratigintzaren erronken artean, nola ez, digitalizazioa dago. 1997an Pariserako 18 irrati digitalean emititzen hasi zirenetik, teknologia hori oso presente egon da, eta gaur egun ugari dira digitalean jaio eta aritzen direnak (2000n, ehun irrati baino gehiago lehiatu ziren Île-de-France eremurako emitituguran). Hala ere, interesgarria izango da ikustea zelan egiten duten gaur egungo irrati analogikoek digitalerako birmoldaketa eta zelan erantzuten duten entzuleek². Transizio hori ez da erraza izango (Coutard, 2001 eta Le Flohic, 2003).

2. Produkzio- eta transmisio-sistemetan oso aurreratuta dago digitalizazioa. Hala ere, irrati-seinaleak jasotzeko momentuari dagokionez, oraindik ere nagusi da ekipamendu analogikoa erabiltzen duen jendea. Horrek, Estatu frantziarrean bezala espainiarrean, digitalizazioaren prozesu osoa moteldu du, ia-ia geldiarazi arte.

Estatu Frantziarreko irratigintza.

Irratigintza publikoa				
Taldea	Katea	Programazioa	Edukia	Emisio-eremua
Radio France	France Inter	France Inter	Orotarikoa	Frantzia kontinental
	France Musiques	France Musiques	Musikala	Frantzia kontinental
	France Culture	France Culture	Kultura	Frantzia kontinental
	France Info	France Info	Informazioa	Frantzia kontinental
	France Bleu	France Bleu	Orotarikoa	Frantzia kontinental
		France Bleu Regions	Orotariko errejionala	53 emisio deszentralizatu edukitzeko egitasmoa
	FIP	FIP	Musika eta informazio praktikoa	Paris, Bordele, Nantes eta Strasbourg
	Le Mouv'	Le Mouv'	Gazteentzakoa	Ajaccio, Angers, Brest, Lyon, Marseille, Nantes, Rennes, Toulouse, Clermont-Ferrand eta Paris
	France Culture Europe (ex Victor)	France Culture Europe (ex Victor)	Kultura eta Informazioa	Europa (satelite bidez eta kable bidez)
	Elisa	Elisa	Kanta frantziarrak	Europa (satelite bidez)
	Hector	Hector	Musikala (Klasikoa)	Europa (satelite bidez eta kable bidez)
	Sophia	Sophia		
	Agence Urgences	Agence Urgences	Programa basea	
Radio-Télévision Française d'outre-mer (RFO)	RFO 1	RFO 1	Orotarikoa nagusiki; France Inter-ek osatzen du gaeuz 00-05	Martinika, Guyana Frantziarra, Reunion, Guadalupe, Saint-Pierre eta Miquelon, Mayotte, Kaledonia Berria, Polinesia Frantziarra eta Wallis eta Futuna
	RFO 2	RFO 2	Orotarikoa; France Inter-eko seinalea	
Radio France Internationale	RFI 1	RFI 1		Irrati-formula informatiboa nazioartera begira egina; frantsesez
	RFI 2	RFI 2	Informazioa	Nazioartera begira egina. Frantsesa gehi beste 17 hizkuntza konbinatuz
	RFI 3	RFI 3	Musikala	

Iturria: CSA (2002: "Radio" izeneko txostena.

(http://www.csa.fr/infos/operateurs/operateurs_radio_publiques.php)

Irratia entzuteari dagokionez, interesgarria da ikustea noraino ugaritzen ari den satelitez eta kablez emititzen duten irrati-emisoren kopurua (satelitea jasotzen duen populazioaren %60k transmisio-sistema hori erabiltzen du irratia entzuteko; kablearen kasuan %20koa de proporzioa). Gaur egun, kable- edo satelite-eskaintzak 30-40 irratitik gorako aukera jartzen du entzungai (Le Flohic, 2003: 41).

Irratigintza pribatua				
Taldea	Katea	Eredua	Edukia	Emisio-eremua
Europe 1 Communication	Europe 1	E	Orotarikoa	Estatu osoa
	Europe 2	C	Musika	Estatu osoa
	RFM	D	Musika	Estatu osoa
	Skyrock	D	Musika	Estatu osoa
Radio Télévision de Luxemburg (RTL)	RTL	E	Orotarikoa	Estatu osoa
	RTL2	D	Musika	Estatu osoa
	Fun Radio	D	Musika	Estatu osoa
NRJ	NRJ	C	Musika	Estatu osoa
	Nostalgie	D	Musika	Estatu osoa
	Chérie	C	Musika	Estatu osoa
	Rire et chansons	D	Musika	Estatu osoa

Irratigintza pribatua: irrati-kopurua ereduka	
Eredua	Kopurua
A	547
B	149
C	360
D	17
E	3
Eredu guztietan	1.076

Iturria: CSA (2003): “Les radio privées en France métropolitaine” izeneko txostena.
(http://www.csa.fr/infos/operateurs/operateurs_radio_privées_france_popup.php)

3. ESTATU ESPAINIARREKO IRRATIGINTZAREN IBILBIDEA

3.1. Ekimen pribatuaren aitzindaritza (1923-1937)

XIX. mendearen bueltan, Europako beste hainbat estatutan bezala, eta emisio-maiztasun finkorik eduki gabe ere, irratsaioak emititzen hasi ziren han eta hemen., 1912an, Madrilgo Radio Ibérica-k zuzeneko musikaldiak eskaintzen zituen modu ez iraunkorren. Emisio osatua eta finkoa aireratzten hasi ziren lehenak Radio Barcelona eta Madrilgo Radio España izan ziren, 1924an.

Irratigintza zaletasun modura hartzen zutenengandik erabilpen komertziala eman nahi ziotenenganako jauzia ez zen luzea izan. Denbora gutxian, Estatu espainiarreko hiriburu handienetan irratiak zeuden, enpresa pribatu gisa sortuak.

Irrati-sistema horren elementu adierazgarriak izan ziren, baita ere, Unión Radio Madril-en sorrera 1925ean, (El Sol egunkariko eta Espasa Calpe argitaletxeko jabeek bultzatua) eta emisora horrek kate bilakatzeko eginiko bidean, erosketak, xurgaketak eta, kasuan kasuko, irrati berriak sortzeko ekimenak.

Unión Radio hori, hain zuzen ere, Espainiako Gerra Zibilaren ostean SER izena hartu eta historikoki irrati-kate pribatu nagusiena izatera heldu da.

3.2. Kontrol politikoa irratian

Gerrak irratigintzaren balio militarra, politikoa eta komunikatiboa agerian utzi zituen. Faxistak horren jakitun ziren 1937an Radio Salamanca —geroko Radio Nacional de España (RNE)— sortu eta propaganda-tresna gisa erabiltzen hasi zirenerako.

Gerra ostean, frankismoak sistema publikoa eta pribatua lotuta mantendu zituen lizentziak ematerakoan eta edukietan zentsura gogorra aplikatuz. Irrati pribatuak sortu eta beren artean kateatzeko bideari eutsi zioten aniztasun politiko ezaren adibide argiak bilakatuz (Franquet, 1988). Aipaturiko SER kateaz gain, besteak beste, Compañía Intercontinental eta Rueda de Emisoras Rato sortu ziren. Bien bitartean, errejimenaren altzoetan jaiotako RNE ez ezik, Red de Emisoras del Movimiento, Cadena Azul de Radiodifusión eta Cadena de Emisoras Sindicales direlakoak emititzen hasi ziren. Geroxeago, 1953an, eta Vatikanoarekin sinatutako akordioaren ondorioz, parroketako 200 irrati sortu ziren, urte batzuk berandu-xeago COPEn, Cadena de Ondas Populares-en bilduko zirenak, hain zuzen ere.

Gainera, Franco hil arte, Estatu espainiar osoan irrati-albistegiak ekoizteko eta emititzeko monopolioa RNEren esku zegoen. Horrek esan nahi du irrati guztiek, egunean hirutan Radio Nacional delakoarekin bat egin behar zutela, hark burururiko informazio-saioak eskaintzeko. Bestelako informazio-zerbitzuak debekatuta egon ziren, 1977ra arte.

Uhin ertainetik maiztasun modulaturako birmoldaketa hasita zegoen urte haietan, eta FM deiturikoak ekarriko zuen kalitate hobea, entzuleria berria eta emankizunen nolabaiteko ugartasuna (Balsebre, 1999).

3.3. Aldaketa erraldoien hamarkada

Europan egin zen irratigintzaren birrarauketa eta ordenaketa teknikoaren eskutik eta, bereziki, FMri begira eginikoak, irrati-panorama berria zirriboratu zuen Estatu espainiarrean. Hala nola, RTVE ente publikoaren inguruan antolatu eta bertara murgildu ziren lehengo RNE, REM, CAR eta CES direlakoak. Aldi berean, SER, RATO eta COPE kateei beste bi gehitu zitzaizkien, Antena 3 eta Radio 80 (gero M80 izango zena) izenekoak. Azken bi horiek, urte batzuk beranduago, Unión Radio/PRISAren esku zeuden. Irrati-sistema pribatu osoa gutxi batzuen esku zegoen.

Frankismoaren biharamunean sortu ziren irrati libreak, eta, FM lizentzia berriak lortu zituztenak bereziki, kate pribatuetan txertatu ziren, asko eta asko. Kontzentrazio-joera geldiezina zen (Franquet, 2002). Gainera, irratian abiapuntua

zuten talde multimedien oinarri-jartzea hamarkada honetan egin zen (Prisa eta Onda Cero, esaterako).

Irratigintza informatiboaren garaia zen.

1983an, autonomia estatutuen gerizpean, EAE (Euzko Irratia, 1982) Katalunia (Catalunya Ràdio, 1983) eta Galizia (Radio Galega, 1985) izan ziren irrati publiko deszentralizatua inauguratu zutenak, eta haien ondotik beste asko sortu ziren: Onda Madrid, 1986; Canal Sur de Radio, 1987; Canal 9 Radio, 1989 eta Onda Regional de Murcia.

3.4. *Oligopolioa*

90eko hamarkadan zehar lizentzia-kontzesio desberdinetan, Estatu osora-koetan, autonomia-erkidegokoetan eta baita ere udalekoetan jaio ziren irrati- konzen-traziorako joera aregagotu egin zen, eta talde multimedien inguruan artikulatu ziren asko eta asko.

Unión Radio (Prisa eta Godó), Onda Cero (Telefónica Media) eta Unión Ibérica Radio-Radio España (Planeta) ziren oligopolioaren aktore nagusiak.

1996an 1415 irrati zeuden Estatu espainiarrean, horietatik 829 pribatuak, eta gainontzeko 789ak publikoak.

4. *ESTATU ESPAINIARREKO IRRATIGINTZAREN GAUR EGUNGO EGOERA*

Estatu espainiarreko irrati-gintza pribatua eta publikoa elkarrekin jaio eta garatu dira. Bi egitura oso eta sendo daude gaur egun: publizitateaz finantzatzeko dena bat, eta nagusiki diru publikotik bizi dena (irrati autonomikoak eta udalekoak) bestea. Lehendik esandakoaren ildotik, irrati-gintza pribatuak kapitalaren kontzentrazioa eta multimedia garapenaren bidetik egin du aurrera. Irrati horiek, gainera, Estatu osorako emisioak lehenetsi dituzte eta formatuaren borrokan buru-belarri aritu dira, beti ere audientzia-lehia bizian.

Irrati-gintza publikoa, Estatu osokoari dagokionez, nahiko zentralista izan da. Tokian tokikotasuna autonomia-erkidegoetan sorturiko irrati-entzuten bidez etorri da, emisio-propioak, bertako hizkuntzak eta gertuko audientziak helburu hartuta eginiko programazio-entzuten izan ditu elementu bereizgarriak.

Irrati autonomikoen garrantzia —oso desberdina, bestalde— aipatzekoa da, hainbat tokitan entzuten izatera heldu baita. Hori da Catalunya Ràdioren lorpen aipagarriena. Gainontzeko komunitate autonomoetan ere irrati-gintza autonomikoa kontuan hartzeko moduko audientzia-mailara iritsi da.

Bestalde, inguruko herrialdeetan 70-80ko hamarkadetan gertatu zen irrati-gintza lokalaren iraultza beranduago arte ez zen heldu Estatu espainiarrean. Gainera,

eskaintza handitzea transizio politikoaren bidetik etorri zen eta ez programazioaren ugaritzearen eskutik. Gaur egun, udal-irratigintzak Katalunia, Andaluzia eta Aragonen du indar-apur bat, gainontzekoetan ahulduz joan da desagertu arte; hala ere, bostehundik gora dira martxan ari diren irratia. Kataluniako esperientzian aipatzekoak dira irradi horien arteko elkar-lana (programen ekoizpena eta zabalpena) eta lortu duten nolabaiteko babes instituzionala. Katalunian, udal irratien *booma* oso garrantzitsua izan zen eta da gaur egun (187 irradi), eta oso lotuta dago hedabide lokalen garrantziarekin.

Oro har, Estatu espainiarreko irratigintzaren panoramari dagokionez, lehen aipatu dugun jabegoaren kontzentrazioak beste bi joera zentripetu ekarri ditu berekin: irradi-eskaintza formatu gutxi batzuen inguruan artikulatu izana —orotarikoa eta, tematikoen artean, musika eta informazioa eskainiz— eta, bigarrenik, audientzia gehiena formatu horiei erantzunez bereganatu izana.

Audientzia-kopurua 20,4 milioikoa izan zen 2004an, eta gizartean duen irispen-maila %57,9koa. Hori bai, entzuleria horrek nolako modulazio-motako irratia eragiten dion kasu aztertzen badugu, OMren beherakada nabaritzen da. Izan ere, uhin modulatuak ez du bere entzuleria berriztu eta, 2000an %19,7koa lortzen bazuen, kopuru hori %13ra jaitsi zen 2003an.

Bilakaera hori, hala ere, ez da etorri edukietan gertatu diren berrikuntzen eskutik. OMn nagusi zen programazio berbera, orotarikoa, FMn eskainiz baizik. Egia da FMa dela irratigintzaren espezializazioa ekarri duena, baina uste baino motelago doa.

Irratiko izarren inguruan artikulaturiko programak dira entzule gehien daukatenak, eta horrek orotariko irratigintzaren lehentasuna agerian uzten du. Aipatzekoak dira SEReko Iñaki Gabilondo edo Gemma Nierga; edota 2004 arte Onda Ceron zebilen Luis del Olmo.

Irratigintza tematikoari dagokionez, beti ere orotarikoaren atzetik dagoen arren, indartuz doan eskaintza-mota da³.

Azkenik, irratigintzaren bilakaera teknologikoaren azken kapituluak errepasatuz, digitalizazioa eta internet bidezkoa aipatuko ditugu, telegrafikoki.

1990eko hamarkadaren hasieran, DAB (Digital Audio Broadcasting) estandar europarra erabaki bazen ere, arrazoi politikoek, ekonomikoek, sozialek eta merkatuarekin loturikoez digitalizazioaren bidea makaldu dute neurririk gabe. Gaur egun ere, telebistari gertatu zaionaren kontrara, ez zaio irratigintza analogikoari muga-datarik jarri, eta agindutako kalitate hobea, irradi-eskaintzaren biderketa eta edukien eta zerbitzuen ugaritzea ez da hasi (SGAE, 2004).

Edozelan ere, “Plan Técnico de Radio Digital” delakoak aurreikusten duenez, Estatu espainiarrean 36 lizentziadun arituko dira beste hainbat eremu-geopolitikotan.

Hala nola, 18 estatu osorakoak izango dira (6 RTVErentzat eta 12 pribatuak), 12 autonomikoak (6 publikoak eta beste horrenbeste priatuak) eta, azkenik, 6 udalari dagozkionak (pribatuak) (CIMEC-MB aipatuz, SGAE, 2004: 517).

Bitartean, *bitcaster*-ak agertu dira, interneten bidez, zuzenean ala diferituan, audio-edukiak eskaintzeko asmoz sorturikoak. 1995etik aurrera, hainbat irratiaren emisioak internetez zabaltzen ari dira Estatu espainiarrean, (Ribes, 2001). Horieta-riko batzuek, gainera, interneterako espresuki asmatu eta buruturiko edukiak dituzte.

3. Estatu espainiarrean, irratiaren entzuten dutenetatik %51,4k orotariko programazioa aukeratzen du. Modu berean, Estatu frantziarrean, 2004ko datuen arabera, %37k eta EAEn %64,3k.

Estatu Espainiarreko irratigintza.

Estatu osorako irratigintza publikoa				
Taldea	Katea	Emisora-kopurua	Edukia	Emisio-eremua
RTVE (557)	RNE 1	195	Orotarikoa	Estatu osoa
	RNE 2	121	Musikala	Estatu osoa
	RNE 3	115	Kultura	Estatu osoa
	RNE 5	125	Informazioa	Estatu osoa
	RNE 4		Orotarikoa	Katalunia
Estatu osorako irratigintza pribatua; talde garrantzitsuenak				
Taldea	Katea	Emisora-kopurua	Edukia	Emisio-eremua
Unión Radio	Cadena SER	193	Orotarikoa	Estatu osoa
	40 Principales	71	Musika	Estatu osoa
	Cadena Dial	86	Musika	Estatu osoa
	M 80	35	Musika	Estatu osoa
	Radio Olé	21	Musika	Estatu osoa
	R. Olé Tropical	-	Musika	Kanariar uharteak
	Máxima FM	12	Musika	Hainbat hiritzar
Onda Cero ⁴	Onda Cero	150	Orotarikoa	Estatu osoa
	Europa FM	-	Musika / Informazioa	Estatu osoa
	Onda Rambla	-	Orotarikoa	Katalunia
COPE	Cope	146	Orotarikoa	Estatu osoa
	Cadena 100	65	Musika	Estatu osoa
	Kiss FM	166	Musika	Estatu osoa
Komunitate autonomo osorako irratigintza publikoa				
Taldea	Katea	Emisora-kopurua	Edukia	Emisio-eremua
Radio Euskadi	Euskadi Irratia	5	Orotarikoa	EAE
	Radio Euskadi		Orotarikoa	EAE
	Radio Vitoria		Orotarikoa	Araba
	Euskadi Gaztea		Musika	EAE
	EITB Irratia		Musika	EAE
Asoziatua	R. Rioja Alavesa	1	Orotarikoa	Arabar Errioxa
Catalunya Radio	Cat. Informació	4	Informazioa	Katalunia
	Cat. Cultura		Kultura	Katalunia
	Cat. Música		Musika	Katalunia
	Cat. Radio		Orotarikoa	Katalunia
Canal Sur Radio	-	10	-	Andaluzia
Radio Galega	-	6	-	Galizia

Iturria: SGAE (2004)

4. 2004ko udan, Onda Ceroko akziodun zenbaitek eta irrati-kate horretako esatari ospetsu multzo handi batek alde egin zuen, eta Radio Punto izenekoa sortu.

Irrati-kopurua Estatu espainiarrean (2003)		
Jabegoa	Emisio-eremua	Emisora-kopurua
Publikoak	Estatu osorako kateak	557
	Komunitate autonomorako kateak	29
	Komunitate autonomorako emisorak	7
	Udal-irradiak	242
	Guztira Publikoak	835
Pribatuak	Estatu osorako kateak	886
	Komunitate autonomorako kateak	16
	Emisora independenteak	253
	Guztira Pribatuak	1.155
Guztira Publikoak eta Pribatuak		1.990

Iturria: SGAE (2004)

5. EUSKAL HERRIKO IRRATIGINTZAREN IBILBIDEA

5.1. Lehen urratsetatik erbestera

Radio San Sebastián (1924), Radio Club de Vizcaya eta Radio Vizcaya —azken biak 1925ean— emititzeko baimen ofiziala lortu aurretik ere, baziren ordurako irrati-elkartek buruturiko “haririk gabekoaren” emankizunak.

Estatu espainiar osorako orduantxe sorturiko Unión Radion (geroko SER katea) txertatu ziren lehen euskal irrati horiek.

Hamarkada nahasia izan zen 1930ekoa, eta horren lekuko dira: legedia estatalak, han eta hemen sortu ziren irratiak, Nafarroan (Radio Navarra, 1933) eta Araban (Radio Vitoria, 1934), eta gero, nola ez, Espainiako gerra zibila deiturikoa.

Frankistek agintea eskuratzen zuten neurrian, bereganatu egiten zituzten bertako irratiak eta ondo erabili zituzten beren aldeko mezuak aireratzeko.

Irratigintzaren balioaz jabetuta errepublikazaleek, gerra amaituta gero ere, erbestean eratutako irratiak erabili zituzten, besteak beste Radio España Independiente (1941) delakoa.

1946an, Euzkadi Irratia emititzen hasi zen Iparraldetik, abertzaletasunari hitza eman guran. Irrati horrek bide luzea egin zuen, 1965tik aurrera Venezuelatik emititu eta 1977an desagertu zen arte.

5.2. *Gerra ostean, Estatuaren kontrol politikoa*

Frankismoak kasu batean eta Bigarren Munduko Gerrak bestean, Estatu frantziarrak eta espainiarrak beharrezkoa zuten informazio-tresna, hedabideen eremu-publikoaren zaintza eta edukien inguruko kontrola eskuratzen ahalegindu ziren irratia bidez. Baldintza eta baliabide desberdinez mugituz, biek jo zuten monopolioaren bidera. Francoren errejimenak irratigintza pribatua onartu zuen arren: “Guda amaitu eta gero, berriz, garaileen esku geratu zen informazioaren eta entretenimenduaren monopolioa, bai gobernuaren ardurapean zuzenean, bai bere aldeko alderdien edo erakundeen —Mugimendua deitutakoaren— kontrolpean. Horien ondoan biziraun zuten irradi pribatuek, baina zentsurak eta informazio ofizialak bahituta” (Gutierrez, 2002: 39).

Euskal lurraldean zabaldu eta Estatu espainiarreko beste toki guztietan bezala, irratien kontzentrazioarako joera oso nabarmena izan zen bi hamarkadaz. Mugimenduaren irratigintza azkenean Radio Nacional de Españan murgildu zen, eta Donostiatik 1961ean emititzen hasi zena urteen puruz Hego Euskal Herriko hiriburuetan eta populazio handieneko herrietan irradi-emisoreak eta, nola ez, errepikagailu-sare osoa ezarri zuen.

Radio Francek bide berari segitu zion, eta 1963an Baionatik aineratutako emanaldi solte batzuk besterik ez zirenek 1967an egoitza finkoa irekitzeko modukoa arazoitu zuten.

Eliza katolikoaren itzala irratigintzaren bidez zabaldu nahiak ekarri zuen, besteak beste, parrokien aterpean sorturiko irratia. Hego Euskal Herrian, aitzindariak izan ziren Segura Irratia (1956), Arrate Irratia (1959) eta gerora Herri Irratia adierazle gisa hartuko zuten Iruñekoa (1959), Loiolakoa (1961) eta Donostiakoa (1962). Horietarikoan emanaldietan euskarak oso leku txikia zuen, baina gainontzeko irratiek, hutsa.

5.3. *Irratigintza librea, autonomikoa eta udal-irratia*

Transizio politikoa gertatzen zen bitartean, irratigintzak, gainera, berrikuntza teknologikoak eta arautegikoak bizi izan zituen 70eko hamarkadaren bigarren zatitik aurrera. Estatu espainiarrean, FMren garapena eta emisora pribatuen kopuru-biderketak (lizentziadunak eta libreak deiturikoak) panorama berri bat osatu zuen.

Gainera, handik gutxira, 1982-1983an, Euskadi Irratia eta Radio Euskadi irradi autonomikoak emititzen hasi ziren Donostiatik eta Bilbotik (Euskadi Gaztea 1990ean hasi zen lanean) Eusko Jaurlaritzak bultzatuta.

Pil-pilean zegoen egoera politikoaren eta sozialaren isla izan zen baita ere horrenbeste ugaritu ziren irradi libreen mugimendua, Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren lizentziak esleitzeko eginiko lehiaketak eta horien inguruko istiluak,

eta talde multimedia erraldoein kolonizazio-lana. Irrati askeen mugimendua inoiz baino biziago zegoen 80ko hamarkadan (Gutierrez, 2002: 97-118).

Ipar Euskal Herrian bestalde, 1985ean Radio France-Pays Basque sortu zenerako, lanean ari ziren Gure Irratia (Lapurdi, 1981), Irulegiko Irratia (1982) eta Xiberoko Botza (Maule, 1985), besteak beste.

5.4. Geldiezinean, aurrera

Esan dugun eran, irrati komertzial asko multimedia-taldeen baitan kokatu ziren, eta horrek Estatu mailakoetara kateatu zituen programazioak eta edukiak. Estatuetako irratigintza publikoa oso finkatuta dago gure lurraldean, programazio-autonomiari dagokionez oso mugatua dagoen arren. Horrez gain, azpimarratzekoa da emisio-eremu txikiko irratia, udal-irradi zein mugimendu sozialetatik sortutakoak bereziki, aldaketa-garaian eta oso zatituta dagoen eskaintzaren panoraman lekua aurkitu guran daudela. Internetez aritzeko jaio direnak, esateako, Irratia.com (2000) edota euskaraz jarduten duten irrati elkargunea (Arrosa ekoizpen-zentroa, 2002) bizirik dauden seinaleak dira.

6. EUSKAL HERRIKO IRRATIGINTZAREN GAUR EGUNGO EGOERA

Irratien eragin-eremuak eta jabegoa dira azpiatal honen barruan kontuan hartuko ditugun elementurik garrantzitsuenak. Izan ere, Estatu frantziar zein espainiar osorako emititzen duten irratiez gain, komunitate autonomo, herrialde zein udal barruan ari diren irratia asko dira gure artean. Gainera, jabego publikokoak, pribatukoak edo gizarte-irratia ote diren jakitea gaur egungo panorama aberatsa hobeto ezagutzeko lagungarria izango da (Gutierrez, 2003: 179-188).

Estatu frantziarra ala espainiarra, bata ala bestea, emisio-eremu gisa hartuta lanean ari diren irrati garrantzia handia da. Alde askotatik ikusita, gainera: audientziari dagokionez, genero- eta formatu-eskaintzari kasu eginez eta baita ere eragin politiko-kultural eta linguistikoaren ikuspegitik begiratuta. Kate erraldoi gisa ari diren irrati horietan, programazioa oso zentralizatua izaten da, eta kasu guzti batzuk besterik ez dira deskoneksioak: albistegiak, zerbitzu-informazioa, agenda eta horrelakoak eskaintzeko.

Estatu espainiar osorako irrati publikoak			
Taldea	Irratia	Programazio-mota	Deskoneksioak / Adierazle bereziak
RTVE	RNE 1	Orotarikoa	RNE en el País Vasco. Albistegia
	RNE 2	Klasikoa	-
	RNE 3	Irrati-formula: Musika eta Kultura	-
	RNE 5	Irrati-formula: Informazioa	-
Estatu frantziar osorako irrati publikoak			
Radio France	France Inter	Orotarikoa	-
	France Musiques	Musika	-
	France Culture	Irrati-formula: kultura	-
	France Info	Irrati-formula: Informazioa	-
	France Bleu	Orotarikoa	France Bleu Pays Basque
	Le Mouv'	Irrati-formula: gazteak	-

EAEn, EITB barruko irratiak daude irratigintza publikoari dagokienez, bakoitza nolabaiteko espezializazio tematiko-linguistikoz. Euskadi Irratiak euskaraz eta Radio Euskadik gaztelaniaz beren programazio propioa aireratzten dute. Bestalde, Radio Vitoriari dagokionez, 1934an jaioa eta bide luzea eginikoa izanik ere, 1981ean Eusko Jaurlaritzak erosi egin zuen, eta harrezkerotik Euzko Irratian dago integratuta. Berezko programazioa du Radio Euskadiren albistegiak, bestelako programak katean emititzen baditu ere. Bestalde, Radio Rioja Alavesa aipatu beharra dago, Arabar Errioxako emisora hori asoziatu egin baitzen irratigintza publikoan eta, nagusiki, haren programazioa antenaraten du (Amoedo, 2004).

Euskal Autonomia Erkidegoko irrati publikoak			
Taldea	Irratia	Programazio-mota	Emisio-eremua
EITB	Radio Euskadi	Orotarikoa	Hegoaldea
	Euskadi Irratia	Orotarikoa	Hegoaldea
	Euskadi Gaztea	Irrati-formula: Musika	Hegoaldea
	EITB Irratia	Irrati-formula: Musika eta Kultura	Hegoaldea
	Radio Vitoria	Orotarikoa	Araba
	Radio Rioja Alavesa	Orotarikoa	Arabar Errioxa

Azkenik, legalki eta egitura aldetik ere, guztiz finkatu gabe dagoen udal-irratigintza zerrendatuko dugu.

Udal-irratia	
Irratia	Kokapena
Anboto Irratia	Elorrio
Aralar Irratia	Lekunberri
Arrasate Irratia	Arrasate
Berriozar Irratia	Berriozar
Esan Erran	Basaburua
Getxo Irratia	Getxo
Irati Irratia	Aribe
Itsuki Irratia	Bermeo
Karrape Irratia	Leitza
Mozoilo Irratia	Galdakao
Oñati Irratia	Oñati
Zirika Irratia	Idiazabal
Zornotza Irratia	Zornotza

Bestalde, jabego pribatuari dagokionez, lehen aipatu dugun gisa, oso jatorri desberdina dute (irradi “periferikoak” ala lokal gisa sortu eta azkenean kateatuta daudenak, esaterako) Estatu espainiarrean eta frantziarrean. Hala ere, nabarmena da irrati horiek gure artean duten hedadura.

Irrati publikoekin gertatzen den bezala, oso zentralizatua dute emisioa eta deskoneksio txikiak besterik ez dituzte egiten informazio-, kirol- eta agenda-saioak eskainiz. Gainera, egunean zehar, publizitatea dela medio, asko dira emisio zentralizatua eten eta iragarki lokalak eskaintzeko egiten dituzten tarte laburrak.

Estatu espainiar osorako irrati pribatuak			
Taldea	Katea	Programazio-mota	Emisorak
Unión Radio	SER	Orotarikoa	Radio San Sebastián
			Radio Bilbao
			Radio Navarra
	40 Principales	Irrati-formula: m u s i k a + gazteak	-
	Cadena Dial	Musika gaztelereaz	Cadena Dial Euskadi Cadena Dial Onda Vasca eta Cadena Dial Navarra
M 80 Radio	Irrati-formula: musika	Laudio Irratia	
	Máxima FM	Irrati-formula: dance musika	-
Onda Cero Radio	Onda Cero	Orotariokoa	NFK eta EAE
	Europa FM	Musika / Informazioa	NFK eta EAE
COPE	COPE	Orotarikoa	NFK eta EAE
	Cadena 100	Irrati-formula: musika	NFK eta EAE
	Kiss FM	Musika	-
Radio Intereconomía	Radio Intereconomía	Irrati-formula: ekonomia	-
RKM	RKM	Irrati-formula: musika	-
Radio Blanca	Kiss FM	Irrati-formula: musika	-
Estatu frantziar osorako irrati pribatuak			
Europe 1 Communication	Europe 1	Orotarikoa	-
	Europe 2	Irrati-formula: gazteak	Europe 2 Côte Basque
RFM	RFM	Irrati-formula: gazteak	RFM Pays Basque
NRJ	NRJ	Irrati-formula: gazteak	NRJ Bayonne
	Radio Nostalgie	Irrati-formula: musika; helduak	-
	RMC Info	Orotarikoa	-
RTL	RTL	Orotarikoa	-
	RTL 2	Irrati-formula: musika	Sud Aquitaine

Irratigintza pribatuaren atalean, emisio-eremu murriztagoa duten beste irrati batzuk ere badaude. Horien artean kokatzen dira meso-talde mediatikoen parte direnak, irratigintzara dedikaturiko enpresario txikienak edo apezpikutzen inguruan sortutakoak.

Irratigintza pribatu erregionala: Hegoaldean		
Taldea	Irratia	Programazio-mota
NGR	Radio Nervi3n	Informazioa eta musika
	Gorbea Irratia	Informazioa eta musika
Loiola-Donostia Herri Irratiak	Herri Irratia-Donostia	Orotarikoa
	Herri Irratia-Loiola	Orotarikoa
Estatu frantziar osorako irrati pribatuak		
Sud Radio		Orotarikoa

Azkenik, pribatuak izanik ere, inongo irrati-katerekin erlaziorik ez dutenak aipatuko ditugu. Jatorriz oso desberdinak dira.

Irratigintza pribatu independentea: Hegoaldean		
Irratia	Kokapena	Programazio-mota
Arrate Irratia	Eibar	Irrati-formula: musika
Bilbo Hiria Irratia	Bilbo	Orotarikoa
Bilboko Herri Irratia	Bilbo	Orotarikoa
Bizkaia Irratia	Bilbo	Irrati-formula eta Orotarikoa
Estéreo Latino	Uribe Kosta	Musika
Euskal Herria Irratia	Iruñea	Orotarikoa
Planet Radio	Donostia	Musika
Radio Bahía	Lasarte	Orotarikoa
Segura Irratia	Segura	Orotarikoa
Xorroxin Irratia	Elizondo	Orotarikoa

Amaitzeko, Gutierrezen sailkapena mantenduz, gizarte-irratigintza aipatuko dugu. Bertan, hiru talde koka daitezke: elkarte-irradiak, irrati askeak eta bestelakoak. Komunikazio lokala, euskara eta parte-hartze soziala bultzatzeko asmoz sortu ziren lehenak eta, bigarrenen kasuan, Euskal Herrian ere hain oparoa izan den irrati-askeen oinordeak dira.

Gizarte-irratigintza			
Elkarte-irratia		Bestelakoak	
Irratia	Kokapena	Kokapena	Kokapena
Antxeta Irratia	Hendaia	Radio Master	Eibar
Beleixe Irratia	Etxarri Aranatz	Radio Indautxu	Bilbo
Gure Irratia	Baiona	Zopinpa Irratia	Lutxana-Barakaldo
Irulegiko Irratia	Donibane Garazi		
Lapurdi Irratia	Uztaritze		
Mendililia Irratia	Maule		
Radio Bonne Humeur	Hazparne		
Xiberoko Botza	Maule		
Ttan Ttakun Irratia	Donostia		
Txolarre Irratia	Tolosa		

Gizarte-irratigintza			
Irrati askeak			
Irratia	Kokapena	Irratia	Kokapena
Arlote Irrati	Ordizia	Matrailako Irratia	Eibar
Arrakala Irratia	Lekeitiko	Molotoff Irratia	Hernani
Arreta Irrati	Ermua	Pititako Irratia	Santurtzi
Eguzki Irratia	Iruñea	Radixu	Ondarroa
Eup! Irratia	Markina	Tas-Tas Irratia	Bilbo
Eztanda Irratia	Sakana	Txantrea Irratia	Iruñea
Garraxi Irratia	Altsasu	Txapa Irratia	Bergara
Hala Bedi Irratia	Gasteiz eta Sakana	Txantxibiri Irratia	Elorrio
Irola Irratia	Irala (Bilbo)	Zaldiko Maldiko Irratia	Zorrotza
Irintzi Irratia	Astigarraga	Zarata Irratia	Iruñea
KakaFlash Irratia	Azpeitita eta Azkoitia	Zazpiki Irratia	Elgoibar
Koska Irratia	Getxo	Zintzilik Irratia	Errenteria

7. BIBLIOGRAFIA

- Amoedo, A. (2004): *La radio en Alava*, Amoedo, Gasteiz.
- Balle, F. (1997, 8. edizioa): *Médias et Sociétés*, Montchrestien, Paris.
- Balsebre, A. (koor.) (1999): *En el aire. 75 años de radio en España*, Promotora General de Revistas, Madril.
- Bamberger, M. (1997): *La radio en France et en Europe*, Presses Universitaires de France, Paris.
- Bel, N. (2003): “L’audiovisuel”, in Le Flohic, G. (zuz), *Les Médias*, Elenbi, Paris, 31-60.
- Beloki, J. (2004): “Irratia” in Zenbaiten artean, *Euskal Herri Enblematikoa. Prentsa, Irratia eta Telebista*, Ostoa, Lasarte-Oria, 87-138.
- Cheval, J.-J. (1990): *La radio en Espagne*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele.
- Cheval, J.-J. (1997): *Les radios en France. Histoire, état et enjeux*, Editions Apogée, Rennes.
- Coutard, A. (2001): “L’avenir de la radio à l’ère du numérique”. [Txostena]. <http://www.ddm.gouv.fr/radio/dossiers_thematiques/radionum.html>.
- CSA (2003a): “Les radio privées en France métropolitaine” izeneko txostena. <http://www.csa.fr/infos/operateurs/operateurs_radio_privees_france_popup.php>
- , (2003b): “Radio” izeneko txostena. <http://www.csa.fr/infos/operateurs/operateurs_radio_publices.php>.
- DDM (2002): “Les radios en France: panorama” izeneko txostena. <http://www.ddm.gouv.fr/radio/dossiers_thematiques/panoradios.html>
- Díaz, B. (2001): *Informe anual de la comunicación 2000-2001*, Madril, Zeta.
- Dossiers de l’audiovisuel (2000): “Panorama” izeneko atal berezian, hainbat autorek irratitari buruz eginiko artikulua. 94, 6-22.
- Franquet, R. (1988): “Radio: un oligopolio en transformación”, in Bustamante, E. eta Zallo, R. (koor.), *Las industrias culturales en España*, Akal, Madril, 77-107.
- , (2002): “La radio en el umbral digital: concentración versus diversificación”, in Bustamante, E. (koor.), *Comunicación y cultura en la era digital*, Gedisa, Bartzelona, 179-212.
- Fundación Autor-SGAE (2004): *Anuario de las artes escénicas, musicales y audiovisuales* <<http://www.artenetsgae.com/anuario/anuario2004/home.html>>
- Gutierrez, A. (2002): *Euskal irratigintzaren historia*, UEU, Bilbo.
- Lagardere Active Publicité (2003): “Guide de la radio 2003-2004” dokumentua <<http://www.lagardere-active-pub.com>>.
- Le Flohic, G (zuz) (2003): *Les Médias*, Elenbi, Paris.

Ribes, X. (2001): “Las emisoras de radio del Estado español en internet. Las bitcasters”. [Doktore-tesia]. UAB, Bartzelona.

<http://www.tdx.cesca.es/TESIS_UAB/AVAILABLE/TDX-0114102-161943/fxrg1de1.pdf>

Service Juridique et Technique de l'Information et de la Communication (SJTI) (1999): *Indicateurs Statistiques de la Radio*, SJTI, Paris.

8. GEHIGARRIAK

INTERESEKO WEBGUNEAK



- 100 ans de radio <<http://100ansradio.free.fr>>
 Cadena 100 <<http://www.cadena100.es>>
 Cadena 40 <<http://www.cadena40.es>>
 Catalunya Radio <<http://www.catrado.com>>
 Chérie FM <<http://www.cheriefm.fr>>
 CIMEC-MB (Centro de Investigación de Mercado del Entretenimiento y la Cultura-Millward Brown) <<http://www.cimecmb.com>>
 Comité d'Histoire de la Radiodiffusion <<http://www.chr.asso.fr>>
 COPE <<http://www.cope.es>>
 CSA (Conseil Supérieur de l' Audiovisuel) <<http://www.csa.fr>>
 DDM (Direction du Développement des Médias) <<http://www.ddm.gouv.fr>>
 "Directorio de la radio en España" <<http://www.portalmundos.com>>
 Europe n°1 <<http://www.europe1.fr>>
 Europe n°2 <<http://www.europe2.fr>>
 FIP <<http://www.radio-france.fr/chaines/fip/direct>>
 France Bleu <<http://www.radio-france.fr/chaines/radio-bleue/sommaire>>
 France Culture <<http://www.radio-france.fr/chaines/france-culture2/sommaire>>
 France Info <<http://www.radio-france.fr/chaines/france-info/accueil>>
 France Inter <<http://www.radio-france.fr/chaines/france-inter/direct>>
 France Musiques <<http://www.radio-france.fr/chaines/france-musiques/direct>>
 Fun <<http://www.funradio.fr>>
 Fundación Autor-SGAE (Sociedad General de Autores de España) <<http://www.artenetsgae.com>>
 Havas <<http://www.havas.fr>>
 Hector <<http://www.radio-france.fr/chaines/hector/accueil>>
 IP Marketing <<http://www.ip-france.fr/>>
 Lagardere Active Publicité <<http://www.lagardere-active-pub.com>>
 Lapurdi Irratia <<http://www.lapurdi.org>>
 Le Mouv' <<http://www.radio-france.fr/chaines/lemouv/sommaire>>
 Nostalgie <<http://www.nostalgie.net>>
 NRJ <www.nrj.fr>
 Observatoire français des médias <<http://www.observatoire-medias.info/article51.html>>
 Onda Cero <<http://www.ondacero.es>>
 Radio France <<http://www.radio-france.fr>>
 Radio France Museum <<http://www.radio-france.fr/chaines/radio-france/musee>>
 Radio Intereconomía <<http://www.radiointereconomia.com>>
 Radio Nacional de España (RNE) <<http://www.rtve.es/rne>>
 RFI (Radio France Internationale) <<http://www.rfi.fr>>

RMC (Radio Monte Carlo) <<http://www.rmc.mc>>

RTL (Radio-Télévision Luxembourg) <<http://www.rtl.fr>>

RTL 2 <www.rtl2.fr>

SER (Sociedad Española de Radiodifusión) <w.cadenaser.es>

Skyrock <<http://www.skyrock.com>>

Sophia <<http://www.radio-france.fr/chaines/sophia/pres>>

TDF <<http://www.tdf.fr>>

Vie Publique <[\[publique.fr/dossier_polpublic/audiovisuel/chrono/chronogenerale.shtml\]\(http://www.vie-publique.fr/dossier_polpublic/audiovisuel/chrono/chronogenerale.shtml\)>](http://www.vie-</p></div><div data-bbox=)